# TXOSTENA MEMORIA 08

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

TXOS
TENA
MEMO
RIA08

TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

**Aurkezpena-gutuna** 6
Carta de presentación

**Administrazio batzordea** 8
Consejo de administración

**2008ko ikuskizunak** 12
Espectáculos 2008

**ZINEBI 2008** 58
ZINEBI 2008

**Kolaborazioak** 72
Colaboraciones

**Estatistikak** 78
Estadísticas

**Alokairuan gauzatutako jarduerak** 88
Eventos desarrollados en alquiler

**Azpiegitura eta zerbitzuak** 92
Infraestructura y servicios

**Antzokiko produkzioak** 96
Producciones propias

**Esker onak** 101
Agradecimientos



**AURKEZPEN-GUTUNA**
CARTA DE PRESENTACIÓN

**Ibone Bengoetxea Otaolea**

**Arriaga Antzokiko Presidente Eragilea**
Presidenta Efectiva del Teatro Arriaga

Urtero bezala, Arriaga Antzokiak urtean zehar egindako jardueren memoria argitaratu du bi helburu nagusirekin. Batetik, gardentasuna erakutsi nahi dugu, hau da, egin duguna eta lortu ditugun emaitzak. Bestetik, 2008ko laburpen honekin gogoeta bat egin nahi dugu, orain arte lortutakoari eta oraindik lortzeke daukagunari buruz. Memoria honetan zehar, eskainitako ikuskizun guztiei buruzko informazioa aurki daiteke, eta baita ere ikuskizun hauekin lortu ditugun bertaratze maila eta emaitza ekonomikoak.

Autokonplazentzian erori gabe, aurreratu nahi dugu ondorioak onak direla. Eta gauza asko hobetu nahi baditugu ere, atseginez ikusten dugu Arriaga gizartean sendotutako erakundea bilakatu dela kultura sorkuntza eta hedapenari dagokionean. Publiko leial eta ugaria daukagu eta ekimenek erantzun ona izaten dute. Gure iritziz, gizartean integratuta dagoen Antzoki bizi bat eraiki izana da martxan daramatzagun urte guzti hauen buruan erdietsi dugun lorpenik garrantzitsuena.

Etengabeko hobekuntzako lan honen barruan, aipatu behar dugu Emilio Sagi kontratatu dugula zuzendari artistiko bezala, izan ere, lerro hauetan aipatu beharrekoa iruditu zaigu. Gaur egun lirikaren esparruan dagoen eszena zuzendaririk ezagunenetakoa da eta lehenago ere lan hori egin izan du Madrileko Teatro de la Zarzuela eta Teatro Real antzokietan.

Baita ere aipatu nahi genuke berriro hasi garela "Arriagako Aretotxoak" ekimena antolatzen. Honen bitartez formatu txikiko musika ikuskizunak eskaini nahi ditugu, Antzokiko foyer-ak eskaintzen duen inguru intimoago eta hurbilagoan.

Azkenik, aukera aprobetxatu nahi dugu eskerrak emateko. Eskerrak Administrazio Kontseiluko kideei, gure babesleei, Antzokiko langileei, barruti eder hau artez eta adimenez betetzen duten artista guztiei, eta batez ere zuei, publikoari, Bilboko eta Bizkaiko herritarrei, zuen presentzia eta goxotasunarekin bizia eta zentzua ematen baitiozue gure –guztion– Arriaga Antzokiari.

Un año más el Teatro Arriaga hace pública su Memoria de Actividades. El objetivo que nos mueve a ello es doble. En primer lugar se trata de un ejercicio de transparencia; mostrar lo que hemos hecho y los resultados obtenidos. Por otro lado pretendemos que este resumen del año 2008 nos sirva a nosotros para reflexionar sobre lo conseguido y sobre lo que todavía falta por lograr. A lo largo de esta Memoria se facilita información cumplida de todos los espectáculos ofrecidos así como los resultados económicos y de asistencia que generaron.

Permítasenos adelantar, sin caer en la autocomplacencia, que las conclusiones son razonablemente satisfactorias y que, si bien no es poco lo que deseamos mejorar, constatamos con alegría que el Arriaga se ha convertido en una institución de creación y difusión de cultura asentada socialmente, que cuenta con un público fiel y numeroso que responde positivamente a sus iniciativas. Creemos que el mayor logro conseguido después de todos estos años de funcionamiento es haber puesto en pie un Teatro vivo e integrado en la sociedad que lo acoge.

En esa labor de continua mejora que pretendemos, hay que encuadrar la contratación de Emilio Sagi como director artístico, hecho que no queremos dejar de mencionar en estas líneas. Se trata de uno de los directores escénicos del campo de la lírica más renombrados de la actualidad y ha desempeñado con antelación el mismo cometido en el Teatro de la Zarzuela y en el Teatro Real de Madrid.

Quisiéramos también recoger aquí la reanudación de los "Cuartitos del Arriaga", iniciativa con la que se pretende ofrecer espectáculos musicales de pequeño formato en el ámbito más recogido y cercano del foyer del Teatro.

Finalmente queremos aprovechar esta ocasión para dar las gracias. Gracias a los miembros del Consejo de Administración, a nuestros patrocinadores, al personal del Teatro, a todos los artistas que llenan de arte e inteligencia este bello recinto y sobre todo a vosotros, público y pueblo de Bilbao y Bizkaia, que con vuestra presencia y calor dais vida y sentido a nuestro –de todos– Teatro Arriaga.

IL VIAGGIO A REIMS



## **ADMINISTRAZIO BATZORDEA ETA ARRIAGA ANTZOKIAREN ZUZENDARITZA**
## CONSEJO DE ADMISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DEL TEATRO ARRIAGA

KATIUSKA



## ARRIAGA ANTZOKIAREN KONTSEILARIAK
CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN TEATRO ARRIAGA

**BEREZKO PRESIDENTEA**
PRESIDENTE NATO

Excmo. Sr.
Don Iñaki Azkuna Urreta

**PRESIDENTE ERAGILEA**
PRESIDENTA EFECTIVA

Doña Ibone Bengoetxea Otaolea

**KONTSEILUKIDEAK**
CONSEJEROS

Don Andoni Aldekoa de la Torre
Don Luis Hermosa Santamaría
Don Txema Oleaga Zalbidea
Don Txema Gonzalo Casal
Don Javier Viar Olloqui
Doña Begoña Salinas Solano
Don Pío Ortiz de Pinedo Maza

## NOR GARA
QUIENES SOMOS

**Zuzendari Artistikoa**
Director Artístico:
Emilio Sagi

**Zuzendari Artistikoaren Albokoa**
Director Artístico Adjunto:
Daniel Bianco

**Zuzendari Nagusia**
Director Gerente:
José Ignacio Malaina Sánchez

**Programazio eta Operazioetako Zuzendaria**
Director de Programación y Operaciones:
Andoni Olivares Ijalba

**Zuzendari Teknikoa**
Director Técnico:
Javier Iturrioz Uriondo

**Errejidorea**
Regidor:
Joseba Erkiaga Cilloniz

**Programazio Arduraduna**
Responsable de Programación:
Izaskun Etxebarria Goikoetxea

**Zuzendaritza Laguntzailea**
Ayudante de Dirección:
Miren García Bernaola

**Eszena Koordinatzailea**
Coordinadora Escénica:
Maribel Belastegi Gómez

**Areto Burua**
Jefe de Sala:
Miguel Calle Herrero

**Programazioko Teknikaria**
Técnico Programación:
María Dolores del Campo Serrano

**Zuzendari Teknikoaren laguntzailea**
Ayudante del Director Técnico:
Alberto Gutiérrez Campo

**Giza Baliabideetarako Administrari Laguntzailea**
Auxiliar Administrativo de RR.HH.:
Natividad Alonso Alonso

**Administrari Laguntzailea Kontabilitatea**
Auxiliar Administrativo Contabilidad:
Jesús Mª Rico Hernández

**Teknikari Laguntzailea**
Técnico Auxiliar:
Itziar Olalde Rementería
Fernando Seisas López
Jon Barañano Iraider
Javier Peñas Peñas
Maite Pérez Fernández

**Aretozaina**
Acomodador/a:
Sara Villa Arroyo
Daniel Díez González
José Manuel Sánchez San Juan
Antonio Soto Ibáñez

**Jostundegiko Arduraduna**
Responsable Sastrería:
Oscar Armendáriz Lucarini

**Argiketarien Buru**
Jefe de Electricistas:
Fco. Javier Saiz Blanco

**Argiketaria**
Electricista:
Antonio de la Cruz Arias
Ángel Mª Alonso García
José Antonio Becerra
Gorka Ochoa Gorostiza

**Argiketaria**
Tramoyista:
Carlos Albizuri
Ibon Andueza Elorza
Germán Cundín Pérez
Fco. Javier Izagirre Goikolea
Joseba Urkizu Villalain

**Tramoiarien Laguntzailea**
Ayudante de Tramoyista:
Darío de Castro
Laureano Fernández Iriarte

**Zinema Jaialdiko Idazkaria Orokorra**
Secretaria General – Zinebi:
María Ángeles Olea Bilbao
Inés Intxausti Garmendia

**Administrazioa-Zinebi**
Técnico Auxiliar - Zinebi:
Lucía Goitia Calzada





GATAS

Tomaz Pandur, Darko Lukic

# BARROCO

## urtarrila 11 – 13 enero

Tomaz Pandur eta Darko Lukic-ek Barroco sortu zuten Choderlos de Laclos-en Lagun arriskutsuak eta Heiner Müller-en Cuarteto obrak abiapuntutzat hartuta. Antzerki muntaia aparta, irudimenez eta sentsualitatez betea, desagertzear dagoela dirudien mundu batean girotuta. Nacho Duatok egin zuen antzerki ariketa berritzaile honen koreografia eta, gainera, interprete bikainak izan zituen: Blanca Portillo, Asier Etxeandia eta Chema León.

Tomaz Pandur y Darko Lukic, a partir de Las amistades peligrosas de Choderlos de Laclos y de Cuarteto de Heiner Müller, crearon Barroco. Un extraordinario montaje teatral, lleno de imaginación y sensualidad, ambientado en un mundo cuya desintegración parece inmediata. Un innovador ejercicio teatral que contó con la coreografía de Nacho Duato y las espléndidas interpretaciones de Blanca Portillo, Asier Etxeandia y Chema León.



BALLET DEL TEATRO NACIONAL DE WIESBADEN

# BLANCO COMO LA LUNA

## urtarrila 16 – 17 enero

Wiesbaden Antzoki Nazionaleko Baletak, Stephan Toss bere zuzendari berriaren agindupean, kritikak goraipatutako eta hiru zatitan banatutako programa bat eskaini zigun:
Johann Sebastian Bach-en konposaketan oinarritutako Musika Eskaintza; Sergei Prokofiev-en konposaketa batean inspiratutako Ikuspen Iheskorrak eta No Cha Cha Cha. Arvo Prät-ek idatzitako azken obra honetan, tangoa, cha cha cha, folklorea eta Trisagnion musika nahasten dira.

El Ballet del Teatro Nacional de Wiesbaden, con su nuevo director Stephan Toss al frente, nos ofreció un programa muy elogiado por la crítica y compuesto por tres partes:
Ofrenda Musical, a partir de la composición de Johann Sebastian Bach; Visiones Fugitivas, inspirada en una composición de Sergei Prokofiev y No Cha Cha Cha donde se mezclan sonidos de tango, cha cha cha, folklore y la música de Trisagion, obra de Arvo Pärt.



# MIKEL URDANGARIN

## urtarrila 18 enero

Mikel Urdangarinek (Zornotza, 1971) Anek idatzi dit zutaz bere azken diskoa aurkeztu zigun. Lan honek nobedade ugari eta kantautore bizkaitarrak lortu duen heldutasun ukaezina erakusten dizkigu, hamar urteko ibilbide artistiko oparoaren adierazgarri. Artista honek estilo propioa, ezaguterraza eta nahastezina dauka lehen akordetik, bere kantu guztiak barnera egindako begiradan inspiratuta daude eta presentzia instrumental nabarmena daukate.

Mikel Urdangarin (Etxano-Amorebieta, 1971) quiso presentarnos su último trabajo discográfico, titulado Anek idatzi dit zutaz (Ane me ha escrito sobre ti). Un trabajo con muchas novedades y una irrefutable prueba de la inequívoca madurez alcanzada por el cantautor vizcaíno tras una larga década de trayectoria artística y vital. Artista con un estilo propio, reconocible e inconfundible desde el primer acorde, sus canciones, inspiradas todas en una mirada introspectiva, poseen una marcada presencia instrumental.



William Shakespeare

# DOS CABALLEROS DE VERONA

## urtarrila 19 – 20 enero

Ur Teatro konpainiak gure eszenatokietan gutxitan ikusten den obra bat eskaini zigun: Dos caballeros de Verona, William Shakespeare-k gaztetan idatzitako antzerkia. Antzerki honetan, umetatik lagunak diren bi gazte euren buruekin borrokan dabiltza, anbizioaren eta maitasunaren artean eta traizioaren eta laguntasunaren artean erabakitzeko. Helena Pimenta da konpainiaren sortzaile eta zuzendaria. Shakespeare-ren espezialista handi honek sari ugari irabazi ditu bere muntaiengatik eta publiko eta kritikaren oniritzia lortu ditu.

La compañía Ur Teatro nos ofreció un título poco frecuente en nuestros escenarios: Dos caballeros de Verona, obra de juventud de William Shakespeare, en la que dos jóvenes, amigos desde la infancia, se debaten entre el amor y la ambición, entre la traición y la amistad. Helena Pimenta, fundadora y directora de la compañía, una verdadera especialista en el autor inglés, ha recibido por sus montajes numerosos galardones y el reconocimiento de público y crítica.



Carlo Goldoni

# ARGELINO, SERVIDOR DE DOS AMOS

## urtarrila 25 – 26 enero



Carlo Goldoniren hirugarren mendeurreneko ospakizunak aprobetxatuz, Animalariok eta Abadía Antzokiak Argelino, servidor de dos amos eskaini ziguten, jatorrizko Arquelino obraren hurbilketa libre eta eguneratua. Andrés Lima zuzendariak jatorrizko komediaren espiritua, argumentua eta Goldoniren testuaren zati handi bat mantendu nahi izan ditu, barre artean lantzeko immigrazioa edo betiko klase eta sexuen arteko borroka bezalako gaiak.

Aprovechando la celebración del tercer centenario de Carlo Goldoni, Animalario y el Teatro de la Abadía nos ofrecieron este Argelino, servidor de dos amos, libre aproximación y actualización del original Arlequino. Andrés Lima, su director, ha querido conservar el espíritu de la comedia original, el argumento y buena parte del texto de Goldoni para, entre carcajadas, tratar temas como el de la inmigración y la eterna lucha de clases y sexos.



# KEN ZAZPI

## urtarrila 29 enero

Ken Zazpi Euskal Herriko pop-rock talderik famatuenetako bat da, eta kontzertu bat eskaini ziguten bere azken diskoa aurkezteko. Argiak, taldearen laugarren produkzioa Los Angelesen Rafa Sardina bermeotarrak zuzentzen duen After Hours estudio ospetsuan grabatu zuten. Eñaut Elorrietak gidatutako taldearen musikak british pop eta pop-rock amerikarraren ukituak dauzka, eta kantu eta melodia xamur eta gogoraerrazak eskaintzen dizkigu.

Ken Zazpi, uno de los grupos pop-rock más célebres de Euskal Herria nos ofreció un concierto para presentar su último disco, el cuarto de su producción, titulado Argiak, que ha sido grabado en el famoso estudio After Hours de Los Ángeles, regentado por el bermeano Rafa Sardina. La música del grupo liderado por Eñaut Elorrieta, con unos toques del british pop y del pop-rock americano, se distingue por lo entrañable y pegadizo de sus canciones y melodías.





BARROCO

Roberto Bolaño

# 2666

## otsaila 1 – 2 febrero

Ezinezko lana zirudien Roberto Bolaño hil ondoren argitaratutako nobela antzerkira eramateak. Baina Pablo Ley eta Alex Rigolak muntaia bilakatu zituzten ia 1.200 orrialde horiek eta antzerki tratamendu bana prestatu zuten liburuaren bost zatietako bakoitzarentzat; gainera, ikusleak eserita gelditu ziren ikuskizunak iraun zituen bost orduetan, lau etenaldiak barne. 2666 ikuskizuna Teatre Lliure-k produzitu eta Alex Rigola-k zuzendu du.

Trasladar al teatro la novela, póstumamente publicada, de Roberto Bolaño parecía una tarea imposible. Pero Pablo Ley y Alex Rigola convirtieron sus casi 1.200 páginas en un montaje con cinco tratamientos teatrales distintos para sus cinco partes y que tuvo la virtud de aferrar a los espectadores a sus butacas durante las cinco horas que duró la representación con sus cuatro entreactos incluidos. 2666 fue producido por el Teatre Lliure y dirigido por Alex Rigola.



# ÁNGEL CORELLA

## otsaila 4 – 5 febrero

Ángel Corella, munduko dantzaririk onenetako bat, Bilbon izan zen ondoko programa eskaintzeko: Celaje Philip Glass-en musikarekin eta George Birkadze-ren koreografiarekin eta El corsario Suitea Ricardo Drigo-ren musikarekin eta Marius Petipa-ren koreografiarekin. Corella, gainera, American Ballet Theatre baleteko dantzari nagusia da, eta besteak beste gonbidatu bezala aritzen da Londresko Royal Ballet, Milaneko la Scala eta Tokioko baletekin.

Ángel Corella, uno de los mejores bailarines del mundo en la actualidad, nos visitó para ofrecernos un programa compuesto por: Celaje con música de Philip Glass y coreografía de George Birkadze y la Suite de El corsario con música de Ricardo Drigo y coreografía de Marius Petipa. Corella es, además de bailarín principal del American Ballet Theatre, estrella invitada de, entre otros, el Royal Ballet de Londres, la Scala de Milán, y el Ballet de Tokio.



# LOS VIVANCOS

## otsaila 6 – 7 febrero

Los Vivancos zazpi anaiek osatutako taldea da: Elías, Judáh, Josua, Cristo, Israel, Aarón eta Josué Vivancos. Frantzian debutatu zuten 2004an, eta Alemanian eta Kanadan arrakasta bikaina lortu ondoren, Bilbora etorri zitzaizkigun ikuskizun hori aurkeztera. Euren aitak, dantzari eta esperientzia handiko musikariak, txikitatik hezi zituen dantza, musika, borroka eta artearen aldaera guztietan.

Los Vivancos, el grupo de baile constituido por los hermanos Elías, Judáh, Josua, Cristo, Israel, Aarón y Josué Vivancos, presentó su espectáculo de danza con el que debutaron en Francia en 2004, y con el que han recorrido también Alemania y Canadá con una acogida entusiasta. Su padre, gran bailarín y músico consumado, les educó desde la infancia en todas las vertientes de la danza, la música, la lucha y el arte.



Jordi Galcerán

# EL MÉTODO GRONHOLM

## otsaila 12 – 13 febrero

Lau aktore euskaldun bikainek (Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Ramon Agirre eta Itziar Ituño) euskaraz interpretatu zuten Jordi Galcerán-en Gronholm Metodoa Carlos Zabalaren zuzendaritzapean. Obra honen katalanezko eta gaztelaniazko muntaiak zein zinemako bertsioa itzelezko arrakastak izan ziren. Antzezlan honetan kontatzen da lau hautagai lehiatzen direla multinazional garrantzitsu bateko exekutibo plaza bat lortzeko. Hautaketa prozesuan zehar, inolako zentzurik gabeko frogak egin beharko dituzte.

Cuatro estupendos actores vascos, Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Ramón Agirre e Itziar Ituño, dirigidos por Carlos Zabala, presentaron en euskera la obra de Jordi Galcerán El método Gronholm, cuyos montajes en catalán o castellano o su versión cinematográfica han sido un éxito extraordinario. En ella cuatro candidatos a obtener una plaza de ejecutivo en una importante multinacional son sometidos a un proceso de selección con pruebas que con frecuencia rayan en lo absurdo.



20 | 21

Sergi Belbel

# EN LA TOSCANA

## otsaila 15 – 16 febrero

Teatro Nacional de Cataluña antzokiak aurkeztu zuen Sergi Belbel-en En la Toscana produkzio berria, autoreak berak zuzenduta. Drama eta komediarik azidoenaren arteko obra bat dela esan genezake. Mundu mailako estreinaldia Copenhague-n izan zen hilabete batzuk lehenago eta Danimarkako kritikarien aho-bateko oniritzia jaso zuen, azpimarratuz obra honek drama eta komizitatearen artean egiten duen nahasketa harrigarria: "gaur egungo mendebaldeko gizartearen irudi indartsua".

El Teatro Nacional de Cataluña presentó, con la dirección del propio autor, el nuevo texto de Sergi Belbel, En la Toscana; una obra que oscila entre el drama y la comedia más ácida. Su estreno mundial, que había tenido lugar en Copenhague unos meses antes, fue acogido por la crítica danesa con elogios unánimes subrayando la mezcla de drama y sorprendente comicidad de esta obra, "imagen potente de la sociedad occidental de nuestros días".



Compañía Antonio Gades

# CARMEN

## otsaila 21 – 23 febrero

Antonio Gadesi Carlos Sauraren pelikula grabatzen ari zen bitartean otu zitzaion Carmen obraren muntaia hau prestatzea. Merimée-ren obran inspiratuta eta Bizet-en musikarekin, besteak beste, Parisen estreinatu zen 1983an eta erabateko arrakasta izateaz gain, Gadesi mundu mailako ospea eman zion dantzari eta koreografo bezala. Artistak berak sortutako fundazioaren eskutik iritsi zitzaigun indar, grina, kolore eta edertasunez betetako muntaia berri hau.

Antonio Gades concibió este montaje de Carmen paralelamente al rodaje de la película de Carlos Saura. Inspirado en la obra de Merimée y con la música de Bizet, además de otras aportaciones, fue estrenado en París en 1983 y supuso un éxito absoluto y la consagración mundial de Gades como bailarín y coreógrafo. La fundación que creara el propio artista fue la responsable de este nuevo montaje lleno de fuerza, pasión, color y belleza.



Juan Antonio Urbeltz

# AXERI-BODA

## otsaila 24 febrero

Juan Antonio Urbeltz antropologo eta folkloristak 1966tik zuzentzen duen Argia dantza taldeak bere azken lana aurkeztu zigun, Axeri-boda. Gipuzkoa eta Bizkaiko tradizio zahar baten arabera, euria ari duenean eta eguzkia ageri denean ezkontzen dira azeriak. Sinesmen honek antzekotasunak dauzka Japoniako beste sinesmen batekin, zeina Akira Kurosawak zinemaratu baitzuen Los sueños filmean (Konna yume wo mita edo Dreams).

El grupo de danza Argia, dirigido desde 1966 por el antropólogo y folklorista Juan Antonio Urbeltz nos ofreció su última creación, Axeri-boda. Según una vieja tradición de Gipuzkoa y Bizkaia, cuando llueve y hace sol es el momento en que los zorros celebran sus bodas. Creencia que guarda paralelismo con una creencia japonesa que Akira Kurosawa llevó al cine en su película Los sueños (Konna yume wo mita o Dreams).



Julio C. Rojas

# EN LA CAMA / OHEAN

## otsaila 28 – martxoa 3
febrero 28 – marzo 3

Izenburu bereko pelikula txiletarra abiapuntutzat hartuta, Maskarada antzerki konpainiak muntaia hau eskaini zigun euskaraz eta gaztelaniaz Matías Bizéren zuzendaritzapean. Ezaugarri berezi bezala aipatzekoa da bertsio bakoitzak aktore eta zuzendari desberdinak zeuzkala: María Esteve eta Roberto Sanmartín Tamzin Towsend-ek zuzenduta gaztelaniazko bertsioan eta Aitor Beltrán eta Matxalen de Pedro Carlos Panerak zuzenduta euskarazko bertsioan. Amodiozko harreman baten jaiotza kontatzen du bi ikuspegitatik.

Partiendo de la película chilena del mismo título, dirigida por Matías Bizé, Maskarada nos ofreció este montaje teatral en euskera y castellano, con la particularidad de que cada versión contaba con un reparto y una dirección distintas; María Esteve y Roberto Sanmartín, dirigidos por Tamzin Townsend en castellano y Aitor Beltrán y Matxalen de Pedro con la dirección de Carlos Panera en euskera. El nacimiento de una relación amorosa vista a través de dos objetivos.





CARMEN

Benjamin Britten

# EL DILUVIO DE NOÉ

## martxoa 8 – 9 marzo

Benjamin Britten-en El diluvio de Noé obra, 1958an estreinatu zen lehen aldiz, eta Miracle Play delakoetan inspiratuta dago. Antzerki genero hau Chester hiri britainiarreko artisau eta merkatari gremioek antzezten zuten 1500. urte aldera. Aparteko opera honetan (familia guztiarentzat pentsatuta dagoena) Jesús Guridi Orkestrak eta Bilboko Musika Eskolako Abesbatzak parte hartu zuten.

La obra de Benjamin Britten El diluvio de Noé, estrenada en 1958, está inspirada en los denominados Miracle Play, un género teatral que representaban los gremios de artesanos y comerciantes de la ciudad inglesa de Chester hacia el año 1500. La representación de esta ópera deliciosa, pensada para el disfrute de toda la familia, contó con la Orquesta Jesús Guridi y el Coro del Conservatorio de la Coral de Bilbao.

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



Calderón de la Barca

# EL PINTOR DE SU DESHONRA

## martxoa 12 – 15 marzo

Compañía Nacional de Teatro Clásico-k Pedro Calderón de la Barcaren drama hau eskaini zigun ohiko indar eta zorroztasunarekin, Rafael Pérez Sierraren bertsioan eta Eduardo Vascoren zuzendaritzapean. El pintor de su deshonra obran, ohorezko kodearen zurruntasuna eta artista plastikoaren esperientzia dira ardatz nagusiak eta Calderónek Urrezko Mendeko errepertorioko obra hunkigarrienetakoa egin zuen bi ardatz horiekin.

La Compañía Nacional de Teatro Clásico nos ofreció, con la solvencia y el rigor acostumbrados, este drama de Pedro Calderón de la Barca, en versión de Rafael Pérez Sierra y dirigido por Eduardo Vasco. En El pintor de su deshonra la rigidez del código del honor y la experiencia del artista plástico son los dos ejes con los que Calderón elabora una de las obras más conmovedoras de nuestro repertorio del Siglo de Oro.



B. Brecht, K. Weill

# LOS SIETE PECADOS CAPITALES

## martxoa 18 marzo

Los siete pecados capitales izan zen Kurt Weill eta Bertolt Brecht-ek elkarrekin egin zuten azken obra, non euren familiarentzat etxe bat eraikitzeko dirua bildu nahian dabiltzan bi ahizpen abenturak kontatzen baitira. Frederic Amat izan zen opera-baletaren zuzendari eszenikoa eta Mary Carewe (sopranoa) eta Catherine Allard (dantzaria) interpreteak. Espainiako Orkestra Nazional Gazteak eta Tenebrae Abesbatzak jarri zioten musika, José Luis Estellés-en zuzendaritzapean.

Los siete pecados capitales, última obra en la que cooperaron Kurt Weill y Bertolt Brecht, cuenta las peripecias de dos hermanas empeñadas en lograr dinero suficiente para construir una casa para su familia. La ópera ballet fue dirigida escénicamente por Frederic Amat e interpretada por Mary Carewe (soprano) y Catherine Allard (bailarina). La Joven Orquesta Nacional de España y el Coro Tenebrae dirigidos por José Luis Estellés completaron el reparto.

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



Federico García Lorca

# HIGH SCHOOL MUSICAL

## martxoa 21 – apirila 6
marzo 21 – abril 6

Bi gaztek protagonizatzen dute eskola amerikar batean kokatutako maitasun, musika eta dantza istorio hau. Hasieran, Disney Channel telebista katerako eginiko produkzioa izan zen baina mundu mailako fenomeno bilakatu da azkenean. Stage Entertainment España produkzio konpainiak, Santiago Pérez musika zuzendariak, Ariel del Mastro eszena zuzendariak, Maite Marcos koreografoak eta hogeita hamar interprete baino gehiagok lortu zuten antzerki hau arrakastatsu bihurtzea.

Esta historia de amor, música y baile protagonizada por dos jóvenes en el marco de una escuela americana fue originalmente una película producida para TV por Disney Channel y ha acabado convirtiéndose en un verdadero fenómeno mundial. La productora Stage Entertainment España, el director musical Santiago Pérez, el director escénico Ariel del Mastro, la coreógrafa Maite Marcos y más de treinta intérpretes fueron los responsables de su éxito teatral.





Ingmar Bergman

## SONATA DE OTOÑO

### apirila 15 – 19 abril

Ingmar Bergman zuzendari suediar handiak 1978an estreinatu zuen Sonata de Otoño filma, eta berekin izan zituen bi aktore bikain, Ingrid Bergman eta Liv Ullmann, ama eta alabaren arteko topaketa zaila interpretatzeko. Antzerki bertsio paregabe hau Pentación konpainiak produzitu eta José Carlos Plazak zuzendu du; interpreteen artean, besteak beste, aipatzekoak dira Chema Muñoz, Nuria Gallardo eta Marisa Paredes zoragarria, ama zakar bezain liluragarriaren paperean.

El gran director sueco Ingmar Bergman estrenó en 1978 la película Sonata de Otoño contando con dos actrices excepcionales Ingrid Bergman y Liv Ullmann para interpretar el difícil reencuentro entre una madre y su hija. Esta soberbia versión teatral estuvo producida por Pentación, dirigida por José Carlos Plaza e interpretada, entre otros, por Chema Muñoz, Nuria Gallardo y la extraordinaria Marisa Paredes dando vida a una madre de personalidad tan desabrida como fascinante.



EL BALLET DEL KREMLIN

## ROMEO Y JULIETA

### apirila 22 – 23 abril

Kremlineko Baleta 1990ean sortu zen eta harrezkero, errepertorio klasiko zabala lantzen du, pribilegiozko postua lortu duelarik Errusiako eta nazioarteko panorama artistikoan. Bolshoi baletaren filiala dela esan ohi da. Andrei Petrov, zuzendari artistiko eta koreografoa, Artista Emeritua da Errusian. Arriagan egin zuten ikuskizunean Romeo eta Julieta, Shakespeare-n tragedian oinarritutako baleta eskaini ziguten Sergei Prokofiev-en musika ederrarekin.

El Ballet del Kremlin, fundado en 1990 y dedicado desde entonces al gran repertorio clásico, ocupa un lugar de privilegio en el panorama artístico ruso e internacional y está considerado como filial del Bolshoi. Su director artístico y coreógrafo, Andrei Petrov, es Artista Emérito de Rusia. En su presentación en el Arriaga nos ofrecieron Romeo y Julieta, el ballet basado en la tragedia de Shakespeare y que cuenta con la bellísima música de Sergei Prokofiev.



Juan Mayorga

## LA TORTUGA DE DARWIN

### apirila 24 – 26 abril

La tortuga de Darwin gaur egungo antzerki idazlerik interesgarrienetako baten, hots, Juan Mayorgaren obra dugu (Antzerki Sari Nazionala 2007an). Bere testua fabula iradokitzaile bat da, historia garaikideari buruzko gogoeta bat eragin nahi duena. El Cruce eta Abadía antzokien artean produzitua, Ernesto Caballerok zuzendu eta Carmen Machi ospetsu eta apartak protagonizatu zuen.

La tortuga de Darwin es obra de uno de los autores teatrales de la actualidad con mayor proyección e interés, Juan Mayorga (Premio Nacional de Teatro 2007). Su texto es una sugerente fábula que quiere provocar una reflexión sobre nuestra historia contemporánea. Coproducida por Teatro El Cruce y el Teatro de la Abadía contó con la dirección de Ernesto Caballero y la interpretación protagonista de la afamada y espléndida Carmen Machi.



BALLET DE LA ÓPERA NACIONAL DE BURDEOS

## GISELLE

### maiatza 2 – 4 mayo

Heine-k ebokatutako kondairan jatorria duelarik, Giselle baleta 1841ean sortu zen Téophile Gautier-en libretoarekin eta Adolphe Adam-en musikarekin, eta koreografien errepertorioko maisulan bezala sailkatua izan da. Bordeleko Opera Nazionaleko Baletak eskaini zigun obra hau Charles Jude zuzendariaren koreografiarekin, eta egungo dantzari garrantzitsuenetako bat izan zen artista gonbidatua, Igor Yebra bilbotarra.

Con origen en una leyenda evocada por Heine, el ballet Giselle fue creado en 1841 con libreto de Téophile Gautier y música de Adolphe Adam y está considerado como una obra maestra del repertorio coreográfico. En esta ocasión nos lo ofreció el Ballet de la Ópera Nacional de Burdeos con coreografía de su director, Charles Jude, y la actuación como artista invitado de la gran figura de la danza, el bilbaíno Igor Yebra.



Georges Feydeau

# HAY QUE PURGAR A TOTÓ

## maiatza 8 –10 mayo

Teatro Español-ek produzitu zuen Georges Feydeau-ren satira bikain hau, XX. mende hasierako komedia frantsesaren autorerik nabarmenetakoa bera. Antzezlan honetan, pixontzi fabrikatzaile batek milioi askotako kontratua lortu nahi du armadarekin. "Ezkontzazko komedia" ero eta bikain hau Georges Lavaudant-ek zuzendu zuen eta, besteak beste, Nuria Espert apartak interpretatu, beretzat ohikoa ez den erregistro batean.

El Teatro Español produjo esta brillante sátira de Georges Feydeau, uno de los autores más destacados de la comedia francesa de principios del siglo XX, en la que un fabricante de orinales aspira a conseguir un contrato millonario con el ejército. Esta disparatada y brillante "comedia conyugal" fue dirigida por Georges Lavaudant e interpretada, entre otros, por la extraordinaria Nuria Espert en un registro poco habitual en ella.



Manuel González Gil, Daniel Botti

# GATAS

## maiatza 15 – 17 mayo

Gatas klase sozial desberdinetako emakume talde baten istorioa da, zeinak XX. mendean hasitako ohiturari jarraituz, euretako baten etxe aristokratikoan biltzen baitira. Obra hau garai historiko baten errepasoa da, garai bat erabakigarria izan dena emakumearen askatasuna eta berdintasuna lortzeko. Aktore talde hautatu batek interpretatua eta Daniel Botti-rekin batera obra idatzi zuen Manuel González Gilek zuzendua.

Gatas es la historia de un grupo de mujeres de diferentes clases sociales que se reúnen en la aristocrática casa de una de ellas, siguiendo una costumbre que comenzó con el siglo XX. La obra se convierte en un repaso a una época histórica, que ha sido decisiva en la conquista femenina de la libertad y la igualdad. Interpretado por un escogido reparto de actrices, el montaje estuvo dirigido por Manuel González Gil coautor, con Daniel Botti, de la obra.



Cloud Gate Dance Theatre of Taiwán

# MOON WATER

## maiatza 23 – 24 mayo

Moon Water ikuskizuna Cloud Gate Dance Theatre of Taiwan konpainiak aurkeztu zuen 1998ko azaroaren 18an Taipei-ko National Theatre antzokian. Sortzaileak, Lin Hwai-min koreografoak, lengoaia artistiko bat garatzearen aukerak esploratu ditu Tai Chi Tao Yin-en teknikak abiapuntutzat hartuta, Johann Sebastian Bach-en Biolontxelo bakarlariarentzako Sei Suite-n musika erabiliz. Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko topaketa, edertasun txundigarriko ikuskizun batean.

Moon Water fue estrenada por el Cloud Gate Dance Theatre of Taiwan el 18 de noviembre de 1998 en el National Theatre de Taipei. Su creador, el coreógrafo Lin Hwai-min, ha explorado las posibilidades de desarrollar un lenguaje artístico a partir de las técnicas de Tai Chi Tao Yin, apoyándose en la música de las Seis Suites para Violoncello solista de Johann Sebastian Bach. Un encuentro entre Oriente y Occidente mediante un espectáculo de sorprendente belleza.



BALLET PRELJOCAJ

# LES 4 SAISONS

## ekaina 6 – 7 junio

Valentin Preljocaj, zalantzarik gabe, dantzaren munduko sortzailerik ospetsuenetakoa da gaur egun. Ez da hau Arriagara etorri den lehen aldia, lehenago ere eskaini baitzigun Sergei Prokofiev-en Romeo eta Julieta ahaztezina. Oraingoan, berak sortu eta bere izena daraman baletak 12 dantzarirentzako koreografia bat aurkeztu zigun, Antonio Vivaldiren Lau Urtaroetako 8 opus kontzertuan inspiratutakoa.

Valentin Preljocaj, sin duda uno de los creadores más afamados del mundo de la danza en la actualidad, no era ésta la primera vez que visitaba el Arriaga. Ya nos había ofrecido un memorable Romeo y Julieta de Sergei Prokofiev. En esta ocasión el Ballet que el fundó y que lleva su nombre nos presentó una coreografía para 12 bailarines inspirada en el concierto opus 8 Las Cuatro Estaciones de Antonio Vivaldi





GISELLE

# BETI JAI ALAI DANTZARI TALDEA

## ekaina 13 – 14 junio

Beti Jai Alai dantzari taldeak bere berrogeigarren urteurrena bete zuen. Berrogei urtez euskal kulturaren funtsezko elementu bat lantzen eta zabaltzen: dantza. Urteurrena ospatzeko, antzinako Bilboko festak berreraikitzen dituen ikuskizun bat eskaini ziguten, gertakari hauetan dantza festarako funtsezko elementua izan baita Hiriaren historiaren lau garai desberdinetan.

El grupo de danzas Beti Jai alai cumplió sus cuarenta primeros años de existencia. Cuarenta años dedicados al cultivo y difusión de un elemento primordial de la cultura vasca: la danza. Para celebrar el aniversario nos ofrecieron un espectáculo donde se reconstruyen situaciones festivas del antiguo Bilbao; acontecimientos en los que la danza es elemento festivo primordial en cuatro épocas distintas de la historia de la Villa.



# ESTRIPTIS

## ekaina 17 – 18 junio

Rafael Amargo dantzari eta koreografoa, Sol Picó koreografoa, Carlus Prasissa La Fura dels Baus taldearen sortzaileetako bat, Mario Gas aktore eta zuzendaria, Jaime Chavarri zinema eta antzerki zuzendaria eta Andrés Lima autore, aktore eta zuzendaria elkartu ziren, kabaretetara edo telebistako gau ordutegira mugatutako ikuskizun bat eskaintzeko. Giza gorputzari egindako begirada poetikoa eta aurrejuzkurik gabea, gorputzaz gainera adimena ere berotu eta pizteko pentsatua.

El bailarín y coreógrafo Rafael Amargo; la coreógrafa Sol Picó; el cofundador de La Fura dels Baus, Carlus Prasissa; el actor y director Mario Gas; el director de cine y teatro Jaime Chavarri y el autor, actor y director Andrés Lima se unieron para ofrecernos un espectáculo habitualmente reservado al cabaret o al horario nocturno de televisión. Una mirada poética y desprejuiciada al cuerpo humano que pretendía excitar, también, el cerebro.



W. Shakespeare

# EL REY LEAR

## ekaina 27 – 28 junio



Lear erregearen tragedia, askoren iritziz, Shakespeare-n obrarik bikainena da. Obra honetan, gizatiarra den oro biltzen da, pasiorik handienak eta txikienak, ametsak eta amesgaiztoak, beldurrak eta desioak. Centro Dramático Nacional-ek antzerki unibertsalaren testuetako bat ezagutzeko aukera berri bat eskaini zigun. Juan Mayorgaren bertsioan egin zuten, Gerardo Veraren zuzendaritzapean eta Alfredo Alcón errege zaharraren paperean zelarik.

La tragedia del rey Lear es para muchos la más genial de las obras de Shakespeare. En ella, verdadero compendio de todo lo humano, se citan las pasiones más altas y las más bajas, sueños y pesadillas, temores y deseos. El Centro Dramático Nacional nos ofreció una nueva ocasión de enfrentarnos a uno de los textos inmortales del teatro universal. Lo hizo en la versión de Juan Mayorga, con la dirección de Gerardo Vera y con Alfredo Alcón interpretando al viejo rey.



# HOY NO ME PUEDO LEVANTAR

## abuztua 14 – iraila 7
14 agosto – 7 septiembre

Bilboko Aste Nagusia aprobetxatuz, Arriaga Antzokiak azken aldi honetan ikusminik handiena sortu duen musikala aurkeztu zuen, Hoy no me puedo levantar, Mecano taldearen historian oinarritutako ikuskizuna. Musika José María eta Nacho Cano anaiek konposatutakoa da eta 40 artistak osatutako taldeak antzeztu zuen: hauetatik 13k zuzenean kantatzen dute pertsonaiei bizia emanez, laguntzaile dituztela 20 dantzari eta zuzenean jotzen duten 7 musikari.

Aprovechando las fiestas de la Aste Nagusia bilbaína el Teatro Arriaga presentó uno de los musicales que más expectación habían creado. Se trataba de Hoy no me puedo levantar, el espectáculo basado en la historia del grupo Mecano, con la música de los hermanos José María y Nacho Cano y que contaba con un elenco compuesto por 40 artistas: 13 que cantando en directo daban vida a los personajes, 20 bailarines y 7 músicos tocando en directo.





HOY NO ME PUEDO LEVANTAR

Pablo Sorozabal

# KATIUSKA

## iraila 24, 26, 27, 29 septiembre

Arriaga Antzokiak produzitu zuen Katiuskaren muntaia berri hau 1931n Bartzelonako Victoria antzokian estreinatutako Pablo Sorozabalen obra originalean oinarrituta dago. Printzesa errusiar baten eta komisario sobietar baten arteko maitasun istorioa iraultza garaian kokatzen da eta publikoaren zartzuela gogokoenetako bat da. Emilio Sagi izan zen eszena zuzendaria eta David Giménez Carreras, berriz, musika zuzendaria, bere aginduetara izan zituelarik ahots multzo bikaina, Bilboko Orkestra Sinfonikoa – BOS eta Bilboko Abesbatza.

El Teatro Arriaga produjo este nuevo montaje de Katiuska, obra original de Pablo Sorozabal estrenada en 1931 en el Teatro Victoria de Barcelona. Esta historia de amor entre una princesa rusa y un comisario soviético en los tiempos de la revolución, una de las zarzuelas preferidas del público, contó con la dirección escénica de Emilio Sagi y la musical de David Giménez Carreras al frente de un extraordinario reparto de voces y de la Orquesta Sinfónica de Bilbao – BOS y de la Coral de Bilbao.



Legend Lin Dance Theatre

# MIROIRS DE VIE

## urria 4 – 5 octubre

Miroirs de vie arrakasta handiz estreinatu zen 1998an Avignon-eko Jaialdian eta obra horixe eskaini zuen Legend Lin Dance Theatre konpainiak lehen aldiz Arriaga Antzokian. Ikuskizuna Jiao zeremonia taoistan oinarrituta dago, non hildakoen espirituak aldi baterako bizien mundura itzultzen baitira. Konpainia Lee-Chen Lin-ek sortu zuen, eta euren jaioterriko, hots, Taiwaneko espiritua eta kultura islatu nahi dute beren ikuskizunekin.

Miroirs de vie, la obra con que se presentó en el Teatro Arriaga la compañía Legend Lin Dance Theatre, fue estrenada en el Festival de Avignon de 1998 consiguiendo un éxito clamoroso. La obra está inspirada en el Jiao, una ceremonia taoísta en la que los espíritus de los muertos regresan temporalmente al mundo de los vivos. La compañía, fundada por Lee-Chen, Lin, pretende con sus espectáculos reflejar el espíritu y la cultura de su nativa Taiwán.



365 JAZZ BILBAO

# THE BOSSA NOVA PROJECT

## urria 6 octubre

Eliane Elias, Sao Paulo-n jaio eta New York-en bizi den estilo askotako piano-jolea, konposatzailea eta kantaria ere bada, eta berdin abesten ditu jazzik ortodoxoena, musika klasikoa edo herri musika hegoamerikarra. Egin zigun bisitan bere azken disko-lana aurkeztu zigun, The bossa nova project, non bossa novako kantu klasikoak interpretatzen baititu musika genero honen sorreraren 50. urteurrenean.

Eliane Elias, natural de Sao Paulo y asentada en Nueva York, es una pianista versátil, además de compositora y cantante, capaz de enfrentarse por igual al jazz más ortodoxo, a la música clásica o a la música popular sudamericana. En su visita nos ofreció la presentación de su último trabajo discográfico, The bossa nova project, donde interpreta los temas clásicos de la bossa nova cuando se celebra el 50 aniversario del nacimiento de este género musical.

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



Juan Carlos Rubio

# HUMO

## urria 8 – 10 octubre

Juan Luis Galiardo eta Kiti Mánver dira Juan Luis Rubiok idatzi eta zuzendutako komedia honen protagonistak. Komedia honetan (2005eko SGAE sariaren irabazlea), berriro elkartzen dira garai batean ezkonduta egon ziren protagonistak, izan ere, gizonak tabakoa uzten laguntzeko hitzaldi bat emango baitu emakumea bizi den hirian. Orduan ohartuko dira tabakoarena ez dela biek jasaten duten menpekotasun bakarra.

Juan Luis Galiardo y Kiti Mánver protagonizaron esta comedia, escrita y dirigida por Juan Luis Rubio. Humo, premio SGAE 2005, es una comedia en la que sus personajes, que en un tiempo estuvieron casados, se reencuentran una noche cuando él, en una de sus giras de conferencias para ayudar a la gente a dejar el tabaco, visita la ciudad donde vive ella desde su separación. Comprenderán entonces que el tabaquismo no es la única adicción que siguen padeciendo.



María Bayo

# HOMENAJE A FAUSTINA BORDONI

## urria 11 octubre

**Berriro etorri zen Arriagara María Bayo artista nafar handia, nazioarteko soprano miretsienetako bat. Oraingoan eskaini zuen kontzertua Faustina Bodoni-ri (1697 – 1781) eginiko omenaldia izan zen, XVIII. mendeko sopranorik famatuenetakoa, zeinak arrakasta lortu baitzuen Europa osoan. María Bayo-k, Academia Montis Regalis-en laguntzarekin eta Alessandro de Marchi-k zuzenduta, Hasse, Haendel eta Porpora-ren ariak interpretatu zituen.**

De nuevo se presentó en el Arriaga la gran artista navarra María Bayo, una de las sopranos más admiradas de la escena internacional. El concierto que en esta ocasión nos ofreció es un homenaje a Faustina Bodoni (1697 – 1781), una de las sopranos más célebres del siglo XVIII, que triunfó en toda Europa. María Bayo, acompañada por la Academia Montis Regalis dirigida por Alessandro de Marchi, interpretó arias de Hasse, Haendel y Porpora.

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



G.F. Haendel

# TOLOMEO

## urria 19 octubre

**Bilbao 700 Fundazioak eskaini zigun, lehen aldiz Espainian, Ptolomeo, Rey de Egipto, G. F. Haendel-en obra eszenaratua, 1728an estreinatua Londreseko King's Theatre antzokian. Carlos Aragónek zuzendu zuen Barrokoan espezializatutako musikari txekiarrek osatutako Collegium Marianum-eko orkestra. Curro Carreres izan zen eszenaratzearen arduraduna eta Flavio Oliver kontra-tenorra eta Maria Grazia Schiavo sopranoa izan ziren ahots multzoaren buru.**

La Fundación Bilbao 700 fue la responsable de ofrecernos, por primera vez en España, el montaje escénico de Ptolomeo, Rey de Egipto, obra de G. F. Haendel estrenada en 1728 en el King's Theatre de Londres. Carlos Aragón dirigió la orquesta del Collegium Marianum, formada por jóvenes músicos checos especializados en el Barroco. Curro Carreres fue el responsable de la puesta en escena y el contratenor Flavio Oliver y la soprano Maria Grazia Schiavo encabezaron el reparto.

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



# SLAVA'S SNOWSHOW

## urria 22 – 26 octubre

**Europan, Estatu Batuetan eta Australian saritua izan ondoren, azkenean iritsi zen gure antzokira Slava's Snowshow, publikoak txalotutako eta kritikak miretsitako ikuskizun familiarra. Slava Polunin, azken urteetako clown-ik onena da eta berak sortutako konpainiak zirkuko tradiziora eta mimikara hurbiltzeko modu desberdin bat eskaini zigun. 1993an sortu zenetik, bi milioi eta erdi ikuslek baino gehiagok ikusi dute pailazoen ikuskizun hau.**

Por fin llegó a nuestro teatro Slava's Snowshow, el espectáculo familiar aclamado por el público, admirado por la crítica y premiado en Europa, Estados Unidos y Australia. La compañía creada por Slava Polunin, el clown más aclamado de los últimos tiempos, nos ofreció una forma diferente de acercarse a la tradición circense y a la mímica. Desde su creación en 1993, este espectáculo de payasos ha sido visto por más de dos millones y medio de espectadores.



Juan Mayorga

# LA PAZ PERPETUA

## urria 29 – 30 octubre

**Centro Dramático Nacional eta Teatro de la Abadía konpainien artean eginiko produkzio honek antzerkiaren munduko artistarik gailenenak bildu zituen: Juan Mayorga autorea eta José Luis Gómez zuzendaria. Obran ehiza txakur lehiaketa bat erakusten zaigu, "eliteko txakur antiterrorista" ziurtagiria lortzeko borrokan. Metafora honen bitartez, terrorismoaren gaia eta beronen aurka borrokatzeko bideen legezko mugak lantzen dira.**

Esta producción del Centro Dramático Nacional en colaboración con el Teatro de la Abadía reunía a dos de los artistas más destacados del panorama teatral: el autor Juan Mayorga y el director José Luis Gómez. En la obra asistimos a la competición de varios perros de presa para obtener la distinción de "perro antiterrorista de élite", una metáfora para abordar el tema del terrorismo y los límites lícitos de los medios de lucha contra el mismo.





SLAVA'S SNOWSHOW

# ATERBALLETTO

## azaroa 6 – 7 noviembre

Berriro itzuli da gure eszenatokira Aterballetto, askoren iritziz Italiako balet konpainia nagusia eta maila tekniko handiko bakarlariez osatua. Mauro Bigonzetti konpainiako koreografo nagusiak programa bikoitz eta bikaina sinatu zuen: Presión, H. Lachenmann-en musikarekin eta F. Schubert-en mundu sentikor sakonean inspiratua; eta InCanto dall'Orlando Furioso, G. F. Haendel-en musikarekin eta Ludovico Ariosto-ren Orlando Furioso obran oinarritua.

Volvió a nuestro escenario Aterballetto, considerada como la primera compañía de ballet de Italia y constituida en su mayoría por solistas poseedores de un gran nivel técnico. Su coreógrafo principal Mauro Bigonzetti firmó un extraordinario programa doble: Presión, con música de H. Lachenmann inspirada en el mundo profundamente emotivo de F. Schubert e InCanto dall'Orlando Furioso con música de G. F. Haendel basado en el Orlando Furioso de Ludovico Ariosto.



# SINFONÍAS Y MOTETES DE BACH

## azaroa 8 noviembre

Bach Collegium Japan (BCJ) 1990ean sortu zen publiko japoniarrari Barrokoko maisulanen interpretazioak ezagutzera emateko garaiko instrumentuak erabiliz. Masaaki Suzuki-k, taldearen fundatzaile eta zuzendariak, ospe handia dauka organo eta klabizenbalo bakarlari bezala eta Europako bakarlari eta talde famatuenak zuzendu izan ditu. Arriagan eskaini ziguten emanaldian, J.S. Bach-en 102 eta 140 kantatak eta BWV Sol Minorreko Meza interpretatu zituzten.

El Bach Collegium Japan (BCJ) fue creado en 1990, con el propósito de presentar al público japonés interpretaciones de las obras maestras del Barroco con instrumentos de época. Su fundador y director, Masaaki Suzuki, goza de una excelente reputación como solista de órgano y clavicémbalo y como director de los más renombrados solistas y conjuntos europeos. En su actuación en el Arriaga interpretaron las cantatas 102 y 140 y la Misa en sol menor BWV 235 de J. S. Bach.

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.



Nos queda la palabra

# PACO IBAÑEZ

## azaroa 9 noviembre

Bere karrera luzean zehar, Paco Ibáñezek musika jarri izan die Góngora, Quevedo, Blas de Otero, Gabriel Celaya, Miguel Hernández, Rafael Alberti, Luis Cernuda, León Felipe, Gloria Fuertes, José Agustín Goytisolo, Pablo Neruda edo Antonio Machado poeten olerkiei. Nos queda la palabra kontzertuan, gaztelaniazko poesiaren antologiarik ederrenetakoa eskaini zigun –espainiarra eta iberoamerikarra-, XIII. mendetik hasita gaur egunera arte.

Paco Ibáñez a lo largo de su ya larga carrera ha puesto música a poemas de Góngora, Quevedo, Blas de Otero, Gabriel Celaya, Miguel Hernández, Rafael Alberti, Luis Cernuda, León Felipe, Gloria Fuertes, José Agustín Goytisolo, Pablo Neruda o Antonio Machado. Con Nos queda la palabra nos ofreció un concierto basado en una de las más bellas antologías de la poesía en lengua castellana –española e iberoamericana– desde el siglo XIII hasta la actualidad.



August Strindberg

# LA SEÑORITA JULIA

## azaroa 11 – 13 noviembre

1888an estreinatu zen La señorita Julia, askoren iritziz August Strindberg-ek, suediar literatura modernoaren aitak, idatzitako obrarik onena. Testua "naturalista" bezala definitu zen eta klase, sexu eta ideien borroka islatzen ditu.
Andrea D'Odorico izan zen produkzioaren eta jantzien arduraduna, Miguel Narrosek muntaia zuzendu zuen eta María Adánez izan zen aktore nagusia Julia andereñoaren paperean.

La señorita Julia, fue estrenada en 1888 y está considerada como la mejor obra de su autor, el padre de la literatura sueca moderna, August Strindberg. Su texto, que fue definido como "naturalista", nos enfrenta a una lucha de clases, de sexos y de ideas.
Andrea D'Odorico fue el responsable de la producción y el vestuario, Miguel Narros dirigió el montaje y María Adánez encabezó el reparto interpretando a la señorita Julia.





Dos lágrimas

## EL CIGALA

### azaroa 14 noviembre

Diego Ramón Jiménez Salazar, Diego "el Cigala" izenarekin ezaguna mundu osoan, Madrilen jaio zen, el Rastro auzoan, artista flamenkoen familia batean. Oso umetatik hasi zen kantatzen eta akonpainamendua egin die bere garaiko flamenko dantzaririk garrantzitsuenetako batzuei. 2003an mundu mailako arrakasta lortu zuen Lágrimas Negras lanarekin, Bebo Valdés piano-jole kubatarrarekin batera. Bere azken produkzioaren izena Dos Lágrimas da, non bolero, kopla eta tango ezagunenetako batzuk interpretatzen baititu.

Diego Ramón Jiménez Salazar, cocido mundialmente como Diego "el Cigala", nació en el barrio madrileño del Rastro, en el seno de una familia de artistas flamencos. Empezó a cantar desde muy niño y ha acompañado a algunos de los bailaores más importantes de su época. En 2003 obtuvo un éxito mundial con Lágrimas Negras, en colaboración con el pianista cubano Bebo Valdés. En su última producción, Dos Lágrimas, interpreta algunos de los boleros, coplas y tangos más populares.



## BOLLYWOOD

### azaroa 15 noviembre

Bollywood bi hitzen arteko elkarketa da: Bombay (egungo Mumbai) eta Hollywood. Hitz elkarketa horrek Indiako zinema industria handia islatzen du, zeinak mila film baino gehiago produzitzen baititu urtean. Bidaia musikala: India bezala ere ezagutzen den ikuskizun honetan, ikuslea bidaiari bilakatzen da eta, inprobisatutako gida indiar batek lagunduta, Madras, Rajastan, Punjab, Goa eta Mumbai hirietan zehar ibiliko da, bertako jendearen berezitasunak deskubrituz dantzaren bitartez.

Bollywood es la unión de dos palabras: Bombay (actual Mumbai) y Hollywood, es decir representa la gran industria cinematográfica de la India con una producción de más de mil películas al año. En este espectáculo, titulado también Un viaje musical: la India, el espectador se convierte en un viajero que, junto a un improvisado guía indio, recorre Madrás, Rajastán, Punjab, Goa y Mumbai, descubriendo la peculiaridad de las gentes de cada lugar a través de la danza.



Arístides Vargas

## HARITZAREN AZALERA ZEHATZA
## LA EXACTA SUPERFICIE DEL ROBLE

### azaroa 17 – 18 noviembre

Kukubiltxo konpainiak hogeita hamar urte bete zituen 2007an euskal antzerkiaren munduan; denbora horretan guztian berrogeita hamar ikuskizun baino gehiago sortu eta kalera, aretoetara edo erabilera anitzeko espazioetara eraman dituzte. Helduentzako egin duen lehen obra Arístides Vargas autore eta zuzendari argentinarrarena da eta bertan kontatzen digu Saioa neskato itsuak egiten duen bidaia, iluntasunean bizitzeak sortzen dion mugapena gainditu eta kulturaren mundua ezagutzeko.

La compañía Kukubiltxo cumplió en 2007 treinta años de andadura en el panorama teatral vasco, llevando los más de cincuenta espectáculos creados en ese tiempo, tanto a la calle como a salas o espacios polivalentes. Su primera obra para adultos, de la que es autor y director el argentino Arístides Vargas, nos habla del viaje que realiza una muchacha ciega, Saioa, para percibir el mundo cultural a partir de la limitación que supone vivir en la oscuridad.



Monteverdi y Strozzi

## ERA LA NOTTE

### azaroa 21 noviembre

Anna-Caterina Antonacci abeslari italiar bikainak, askorentzat operaren egungo panoramako talenturik harrigarrienetakoak, Era la notte eskaini zigun, Claudio Monteverdi, Barbara Strozzi eta Pietro Antonio Giramo autoreen arien aukeraketa bat, denak ere gai komun batean oinarritutakoak: maitasun grinaren efektu erogarriak. Ikuskizunaren zuzendari eszenikoa Juliette Deschamps izan zen eta Julian Chauvin-ek zuzendu zuen Le Cercle de l'Harmonie orkestra. 

La extraordinaria cantante italiana Anna-Caterina Antonacci, considerada como uno de los más fascinantes talentos del panorama actual de la ópera, nos ofreció Era la notte, una selección de arias de Claudio Monteverdi, Barbara Strozzi y Pietro Antonio Giramo con un tema común: los efectos enloquecedores de la pasión amorosa. El espectáculo contó con la dirección escénica de Juliette Deschamps y la Orquesta Le Cercle de l'Harmonie dirigida por Julian Chauvin.

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

**Ikuskizun hau gure agertokian izango da Bilbao 700 Fundazioaren eta Arriaga Antzokiaren arteko Lankidetza Hitzarmenari esker.**

Este espectáculo llega a nuestro escenario como fruto del Convenio de Colaboración entre la Fundación Bilbao 700 y el Teatro Arriaga.





DIEGO EL CIGALA



SARA BARAS

Sara Baras

# CARMEN

## **abendua 2 – 7** diciembre

**Sara Baras dantzari handia askotan izan da Arriagako eszenatoki gainean, eta dagoeneko askotan erakutsi digu emakume handien irudira hurbiltzeko daukan modu pertsonala, esaterako Mariana Pineda edo Juana la Loca ikuskizunetan. Muntaia honetan estereotiporik gabeko Carmen bat taularatu zuen, indarrez eta hats poetikoz beterik. Bi dantzari handik eman zioten erreplika: José Serrano Escamillo toreroaren paperean eta Luis Ortega Don José amorante jeloskorrarenean.**

La gran bailarina Sara Baras, que ha pisado en muchas ocasiones el escenario del Arriaga, nos ha ofrecido ya en otros espectáculos su aproximación personal a grandes figuras femeninas, como Mariana Pineda o Juana la Loca. En este montaje incorporó una Carmen sin estereotipos llena de fuerza y aliento poético. Dos grandes figuras le dieron réplica: José Serrano en el papel del torero Escamillo y Luis Ortega en el de Don José, su celoso amante.



Gioachino Rossini

# IL VIAGGIO A REIMS

## **abendua 15, 17, 19, 21** diciembre

**Il viaggio a Reims operak kontatzen du nolakoa den Carlos X.aren koroatze ekitaldira doazen pertsonaia batzuen topaketa bainuetxe batean. Obra Rossini-k idatzi zuen erregearen beraren aginduz. Komikotasunez beteta dago eta 2001ean Pesaroko Jaialdian estreinatu ondoren, Emilio Sagi-k eszenaratu zuen Alberto Zedda musika zuzendariarekin (Rossini-ren espezialista handia) eta Bizkaiko Orkesta Sinfonikoaren – BIOS partaidetzarekin.**

Il viaggio a Reims, que narra el encuentro en un balneario de una serie de personajes que se dirigen a la coronación de Carlos X, fue una ópera escrita por Rossini por encargo del propio monarca. La obra, llena de comicidad, contó con la puesta en escena de Emilio Sagi, estrenada en el Festival de Pesaro de 2001, con la dirección musical del gran especialista rossiniano Alberto Zedda y la participación de la Bizkaiko Orkestra Sinfonikoa – BIOS.



Etxe

# KEPA JUNKERA

## **abendua 22-23** diciembre

**Kepa Junkera musikari euskalduna 1956an jaio zen Bilbon, eta Errekalde auzoan igaro zituen bere lehen urteak. Trikitixa irakasle honek 14 grabaketa editatu ditu. 2004an lortu zuen Bildumarik Onenari emandako Grammy Latino saria bere "K" diskoagatik, zeina Arriaga Antzokian grabatu baitzuen zuzenean. Mundu guztiko artistekin kolaboratzeko prest, zalantzarik gabe, Kepa Junkera da euskal musikarien artean ezagunena eta nazioartekoena.**

El músico euskaldun Kepa Junkera nació en 1956 en Bilbao, en cuyo barrio de Rekalde vivió sus primeros años. Maestro de la trikitrixa, ha editado hasta el momento 14 grabaciones. En el año 2004 obtuvo el premio Grammy Latino al Mejor Album Folk por su disco "K", que fue grabado en directo en el propio Teatro Arriaga. Abierto a la colaboración con otros artistas de todo el mundo, Kepa Junkera es sin duda el más conocido e internacional de los músicos vascos.



Teatro Licidei

# SEMIANYKI

## **abendua 26 – 30** diciembre

**Arriaga Antzokiak pentsa zitekeen modurik alaiena aukeratu zuen 2008ko programazioari buru emateko: lehen aldiz aurkeztu zuen Licidei antzerki konpainia, Errusiako antzerki-clown taldeetan lehena. 1968an sortu zen Leningradon, gaur egungo San Petersburgon eta 25 urtez zuzendu du Slava Polunin-ek. Bere generoko onenetakotzat daukate askok eta estilo propio eta bakarra dauka, zeinak clown-a nahasten baitu barietate eta fartsarekin, edozein adineko publikoari eskaintzeko moduko ikuskizunetan.**

El Arriaga cerró su programación del año 2008 de la forma más festiva imaginable: presentando por primera vez a Licidei, el primero de los grupos de teatro-clown de Rusia. Fundado en 1968 en Leningrado, hoy San Petersburgo, y dirigido durante 25 años por Slava Polunin, está considerado uno de los mejores en su género, con un estilo propio, único, que mezcla el clown, las variedades y la farsa, en espectáculos que conectan con públicos de cualquier edad.






Bilbao Orkestra Sinfonikoa - BOS

## LA FUSION DEL JAZZ Y EL BARROCO

**urria iraila 28** septiembre

Horacio Parravicini **txirula, gitarra** flauta, guitarra
Christoph Filler, **kontrabaxua** contrabajo
Juan Carlos Lorenzo, **gitarra** guitarra
Mariano Santamaría, **pianoa** piano
Joaquín Carrascosa eta Narciso Gómez,
**perkusioa** percusión

María Bayo

## CUARTETO XAENAMI Y VIBRÁFONO

**urria 5** octubre

Xavier Gil, Nathalie Dabadie, **biolinak** violines
Jean-Michel Nougué, **biola** viola
Jon Larraz, **txelo** violoncello
Anthony Lafargue, vibráfono

Bilbao OrkestraSinfonikoa - BOS

## DUO DE TROMBON Y PIANO

**urria 19** octubre

Alberto Urretxo, **tronboia** trombón
Amaia Zipitria, **pianoa** piano

## GRUPO DE CÁMARA IZAI

**urria 29 – 30** octubre

Bruno Claverie, **txirula** flauta
Marco Caratto, **fagota** fagot
Inmaculada Aramburo, **biolina** violín
Loreto F. Imaz, **klabezina/organoa** clave/órgano

365 JAZZ BILBAO

## JOSETXO GOIA – ARIBE

**azaroa 10** noviembre

Bilbao Orkestra Sinfonikoa - BOS

## SAXOPHONE & STRINGS

**azaroa 16** noviembre

Andrej Olejniczak, **saxofoia** saxofón
Azer Lyutfaliev, **biolina** violín
Iwona Przylecka, **biolina** violín
Iwona Andrejczak, **biola** viola
Jerzy Andrejczak, **biolontxeloa** violoncello

Bilbao Orkestra Sinfonikoa - BOS

## PERKUSIOA ETA TXISTU

**abendua 14** diciembre

Jabi Alonso, **perkusioa** percusión
Aitor Amilibia, **txistua** txistu

## MERIENDA MUSICAL

**abendua 18** diciembre

Javier Tomé, **tenorra** tenor
Izaskun Kintana, **sopranoa** soprano
José Manuel Díaz, **baritonoa** barítono
Georgina Barrios, **pianoa** piano

Voces

## LA HESPERIA

**abendua 20** diciembre

David Sagastune, kontratenorra contratenor
Daniel Oyarzabal, klabezina clave

O OPERA txiki














ABAO en ARRIAGA-n txiki



Sergei Prokófiev
## PEDRO Y EL LOBO
**urtarrila 3, 4, 6** enero

Hans Krása
## BRUNDIBÁR
**otsaila 9 - 10** febrero

Poire Vallvé
## LOS MÚSICOS DE BREMEN
**apirila 12 - 13** abril

Xabier Montsalvatge
## EL GATO CON BOTAS
**maiatza 31 - ekaina 1**
mayo 31 - junio 1

Benjamín Britten
## EL PEQUEÑO DESHOLLINADOR
**urria 1-3** octubre



BESTE JARDUERAK BATZUK
OTRAS ACTIVIDADES



Zarzuela

## PLENILUNIO

### iraila 13 septiembre

Plenilunio, Arriaga Antzokiaren ekimen berria, musikaz beteriko gau bat da; eta gau horretan interprete afizionatuek betetzen dute gure eszenatokia. Oraingoan aukeratutako musika zartzuela izan zen eta 40 artistak (besteak beste, aipatu beharra daukagu Rojo bilbotarrak zuzendutako Parkinsondun Gaixoen Abesbatza) musikarako duten gaitasuna erakutsi ziguten, Georgina Barrios eta Iñaki Velascok lagundu zietelarik pianoan. Profesional talde bikaina bildu zen: Maite Alberola, Itziar de Unda, Milagros Martín, Trinidad Iglesias, Jon Plazaola eta Mikeldi Atxalandabaso. Guztiek lagundu zuten Emilio Sagik aurkeztutako gaua arrakastaz betetzen.

Plenilunio es una nueva iniciativa del Teatro Arriaga, consistente en una velada musical donde los intérpretes son aficionados que por una noche llenan nuestro escenario. En esta ocasión la música elegida era de zarzuela y 40 artistas, entre los que no podemos dejar de citar a la Asociación Coral de Afectados de Parkinson dirigida por Balbino Rojo, dejaron muestra de su saber hacer acompañados al piano por Georgina Barrios e Iñaki Velasco. Un conjunto de excelentes profesionales: Maite Alberola, Itziar de Unda, Milagros Martín, Trinidad Iglesias, Jon Plazaola y Mikeldi Atxalandabaso, colaboraron al éxito de la noche, que contó con la presentación de Emilio Sagi.



Cabaret

## PLENILUNIO

### abendua 13 diciembre



Gure eszenatokia gau batez profesionalak ez diren artistekin betetzeko ekimenak kabaret generoa izan zuen ardatz. 37 artistak abestiz, musikaz eta umorez bete zuten emanaldia, pianoan Georgina Barrios, Ana Jiménez eta Jerónimo Martín Richi-k lagunduta. Emilio Sagi eta Eduardo Gaviña "La Yogurinak" egin zuten aurkezpena eta La Otxoa, Asier Bilbao, Las Fellini edo Serafín bezalako artistek biribildu zuten gaua.

La iniciativa de llenar una noche nuestro escenario con artistas no profesionales se dedicó en esta ocasión al género del cabaret. 37 artistas acompañados al piano por Georgina Barrios, Ana Jiménez y Jerónimo Martín Richi, apoyados por figuras como La Otxoa, Asier Bilbao, Las Fellini y Serafín y presentados por Emilio Sagi y Eduardo Gaviña "La Yogurina" redondearon una velada de canciones, música y humor.






**ZINEBI 2008 - ZINEMA JAIALDIA**
ZINEBI 2008 - FESTIVAL DE CINE

# ZINEBIKO 50. EDIZIOAREN MEMORIA
## 2008ko azaroaren 24tik 29ra



**1. ATAL OFIZIALA / NAZIOARTEKO LEHIAKETA**

Bilboko Zine Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Zinemaldiak aurten lehen berrogeita hamargarren urteurrena ospatzen du. Urtemuga borobil hau oroitzeko ZINEBIk ekintza-programa zabal eta askotarikoa prestatu du urriaren 11tik aurrera (palmaresaren atzera begirako zikloak, profesionalen topaguneak, mintegiak, gaikako zikloak, lehiaketak, liburuak eta DVDak aurkeztu ditu, kontzertuak, jaiak, eta abar) eta hauek guztiak Gran Via zinema zaharrean dagoen balio anitzeko gunean burutu dira. Gran Via zinema izan zen, hain zuzen ere, zinemaldiko lehen egoitza 1959. urtean. ZINEBIk oroitzapenerako leku horretan sartu nahi izan ditu berrogeita hamargarren urteurrenean babesa emateko gure hiriko ikus-entzunezko sektorea osatzen duten elkarteek, taldeek, erakunde profesionalek eta hezkuntza-zentroek egindako ekimen guztiak. Oroitzapenerako ekintza guztien programazioa 50. urteurrenari buruzko txosten nagusi honi atxikita dago.

50. urteurrenean 2849 pelikula izango dira, iaz baino 201 gehiago. Pelikula hauek 85 herrialde desberdinetatik datoz, iaz baino 10 herrialde gehiagotatik, eta Hautaketa Batzordeak horietariko 80 proposatu ditu, 26 herrialderi dagozkienak, Nazioarteko Lehian parte hartzeko. Gehienak Espainia mailan estreinaldikoak izango dira, horietariko 18 espainiarrak dira eta tartean 8 euskaldun daude.

Euskal Zinea atalean ondokoak hautatu dituzte lehiaketan parte hartzeko:
- Montenegro, Lander Camarerok egina (fikzioa).
- El tiempo prestado, David Gonzalezek egina (fikzioa).
- Cotton Candy, Aritz Morenok egina (fikzioa).
- Un regalo para Berta, Javier Ortegak egina (fikzioa).
- Ya no voy a hablar más, Hugo Sanz Roderok egina (fikzioa).
- Sin título-Súper 8, Oier Etxeberriak eta Jesus Pueyok egina (dokumentala).
- FGM, Jon Garañok egina (dokumentala).
- Berbaoc, Xabier Erkiziak eta Vuk Jevremovicek egina (animaziokoa).

Espainiako Zinea atalean, aipatutakoez gain, ondokoek parte hartzen dute:
- El encargado, Sergio Barrejonek egina (fikzioa).
- Consulta 16, Jose Manuel Carrascok egina (fikzioa).
- Yo sólo miro, Gorka Cornejok egina (fikzioa).
- Viaje a Bangkok, Dionisio Perez Galindok egina (fikzioa).
- El paso, Daniel Torres Santeuginik egina (fikzioa).
- Heterosexuales y casados, Vicente Villanuevak egina (fikzioa).
- One goal, Sergi Agustik egina (dokumentala).
- A la sierra de Armenia, Juan Rodrigañezek egina (dokumentala).
- ¿Qué nos ha pasado?, Gerardo de la Fuente Lopezek egina (animaziokoa).
- Kabaret Kadne, Marc Ribak eta Anna Solanasek egina (animaziokoa).

Lehiaketarako hautatu diren 80 pelikulen generoa kontuan hartuta, Zinemaldiaren arautegian eza-rritako hiru mailen arabera (fikzioa, dokumen-tala eta animaziokoa), 51 fikziozkoak dira, 11 dokumentalak eta 18 animaziokoak. Kokapen geografikoari dagokionez, pelikula euskaldun eta espainiarrak alde batera utziz, parte-hartzean behin eta berriz nabarmentzen dira Frantzia (7 pelikula), Alemania (7), Polonia (6) eta Amerikako Estatu Batuak (5). Latinoamerikarrei dagokienez -Palmares Ofizialean sari berezi bat du euskaldunen eta espainiarren antzera-, aurten ondoko herrialde hauetako pelikulak nabarmentzen dira: Argentina, Brasil, Chile, Kolonbia, Costa Rica (lehen aldiz), Kuba, Mexiko, Uruguai eta Venezuela. Hainbeste

# MEMORIA DE LA 50ª EDICIÓN DE ZINEBI
## Del 24 al 29 de noviembre de 2008



**1. SECCIÓN OFICIAL / CONCURSO INTERNACIONAL**

El Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao celebra este año su primer cincuentenario. Para conmemorar esta redonda efeméride, ZINEBI ha preparado un extenso y variado programa de actos (ciclos retrospectivos de su palmarés, encuentros profesionales, seminarios, ciclos temáticos, concursos, presentaciones de libros y DVDs, conciertos, fiestas, etc.) que vienen teniendo lugar en el actual espacio polivalente del antiguo cine Gran Vía, primera sede del festival en 1959, desde el 11 de octubre. ZINEBI ha querido dar entrada en ese lugar para la memoria a las iniciativas de apoyo al certamen en su cincuentenario de las asociaciones, colectivos, entidades profesionales y centros de formación que integran el sector audiovisual de nuestra ciudad. La programación de actos conmemorativos se adjunta a esta información general sobre la 50ª edición.

En la 50ª edición se han inscrito 2849 películas, 201 más que el año pasado, provenientes de 85 países, 10 más que en la edición anterior, de las cuales el Comité de Selección ha propuesto 80, pertenecientes a 26 países, para el Concurso Internacional, la mayoría de ellas estrenos en España, de las que 18 son españolas, entre las que se incluyen 8 vascas.

En el apartado de Cine Vasco, han sido seleccionadas para el concurso las siguientes:
- Montenegro, de Lander Camarero (ficción).
- El tiempo prestado, de David González (ficción).
- Cotton Candy, de Aritz Moreno (ficción).
- Un regalo para Berta, de Javier Ortega (ficción).
- Ya no voy a hablar más, de Hugo Sanz Rodero (ficción).
- Sin título-Súper 8, de Oier Etxeberria y Jesús Pueyo (documental).
- FGM, de Jon Garaño (documental).
- Berbaoc, de Xabier Erkizia y Vuk Jevremovic (animación).

En el apartado de Cine Español concurren, además de las mencionadas, las siguientes:
- El encargado, de Sergio Barrejón (ficción).
- Consulta 16, de José Manuel Carrasco (ficción).
- Yo sólo miro, de Gorka Cornejo (ficción).
- Viaje a Bangkok, de Dionisio Pérez Galindo (ficción).
- El paso, de Daniel Torres Santeugini (ficción).
- Heterosexuales y casados, de Vicente Villanueva (ficción).
- One goal, de Sergi Agustí (documental).
- A la sierra de Armenia, de Juan Rodrigáñez (documental).
- ¿Qué nos ha pasado?, de Gerardo de la Fuente López (animación).
- Kabaret Kadne, de Marc Riba y Anna Solanas (animación).

Si tenemos en cuenta los géneros de las 80 películas seleccionadas a concurso, según las tres categorías (ficción, documental y animación) establecidas en el reglamento del Festival, 51 de ellas son de ficción, 11 son documentales y 18 de animación. En cuanto a su distribución geográfica, dejando aparte las películas vascas y españolas, destacan una vez más por su participación países como Francia (7 películas), Alemania (7), Polonia (6) y Estados Unidos (5). En el apartado latinoamericano, que como el vasco y el español cuenta con un premio específico en el Palmarés Oficial, destaca este año la presencia de películas de Argentina, Brasil, Chile, Colombia, Costa Rica (por vez primera), Cuba, México, Uruguay y Venezuela. Una participación tan variada de países y áreas geográficas y culturales acredita un año más, cincuenta años después de su fundación la dimensión verdaderamente ecuménica del Certamen.

**Lugar de proyección: Teatro Arriaga**

herrialdetako, inguru geografikoetako eta kultura desberdinetako partaidetzak beste urte batez eta lehen alditik berrogeita hamar urte pasa ondoren, Zinemaldiaren dimentsio unibertsala ziurtatzen du.

**Emanaldi-lekua: Arriaga Antzokia**

**2. INFOSPAIN**

Sail Ofizialean ez dauden Espainiako fikziozko film labur, dokumental eta animaziokoen panorama. Aurten sail honetan 11 pelikula daude.

**Emanaldi-lekua: Arriaga Antzokia**

**3. INFOEUSKADI**

Sail Ofizialetik kanpo dauden eta lehiaketan sartzen ez diren 15 produkzio euskaldun, fikziozkoak, dokumentalak eta animaziokoak.

**Emanaldi-lekua: Arriaga Antzokia**

**4. BESTEEN BEGIRADA.**
**ZINEA JAMES BENNINGen BEGIETATIK.**

Ziklo honetan James Benning zinegile iparramerikarrak egindako pelikula batzuk erakutsi dira. Agian egungo zinean haizearen kontra dabilen zuzendaririk orijinalena da. Sei film luzeen bitartez zine eta ikus-entzunezko industria erraldoiaren egungo produkzio estereotipatuan irudikatzeko modu nagusiak errotik aldatu behar direla aldarrikatzen du. Hautaketa honetan ondoko lan hauek daude: La Terre des âmes errantes, Camboyako Rithy Pahn-ek egina (Frantzia, 2002); Nicht ohne risiko (Nothing Ventured), Harun Farocki alemaniarrak egina (Alemania, 2004); Pine Flat, Ipar Amerikako Sharon Lockhart-ek egina (AEB., 2006); Time & Tide eta At Sea , Ipar Amerikako Peter Hutton-ek egina (AEB., 2000 eta 2007) eta La Vie moderne, Raymond Depardon frantsesak egina (Frantzia, 2008).

**Emanaldi-lekua: Guggenheim Museoko entzutegia**

**5. LEKUKOA EMATEA.**
**SEI OHAR DOKUMENTALARI BURUZ**

Jean-Pierre Rehmek, FIDeko zuzendariak (Marseillako Zine Dokumentaleko Nazioarteko Zinemaldia), Lekukoa ematea. Sei ohar dokumentalari buruz zikloa aurkeztu du. Sormenaren azken joera esanguratsuenak baliatuz ikus-entzunezko produkzioaren arloan azkenaldian egin diren filmen artean sei film luze dira: Must Read After My Death, Morgan Dews iparramerikarrak egina (AEB, 2007); Morakot (Emerald), Apitchapong Weerasethakul tailandiarrak egina (Tailandia-Japon, 2007); Khiam 2000-2007, Joana Hadjithomas eta Khalil Joreige libanoarrek egina (Libano-Frantzia, 2008); The Confessions of Roee Rosen, Roee Rosen israeldarrak egina (Israel, 2008); The Girl with the X-Ray Eyes, Phillip Warnell britainiarrak egina (Britainia Handia, 2008) eta Au loin des villages, Olivier Zuchuat suitzarrak egina (Frantzia-Suitza, 2008).

**Emanaldi-lekua:**
**Arte Ederretako Museoko auditorioa**

**6. KAMARA. JEAN-CLAUDE ROUSSEAUREN ZINEA**

Gure herrialdean oso ezaguna ez den Frantziako zinegile honen bi film luze eta sei film labur erakutsiko dira. Pelikulek arte indibidual gisa, praktika pertsonal gisa duten zentzuari buruz eztabaidatzen du. Roussearen lanean aditua eta ziklo honetako koordinatzailea den Manuel Asinen hitzetan "Ozuren, Bressonen edo Straub eta Huilleten aszetismotik urrunago doazen bitartekoak erabiliz, bereziki garestia ez den kamara batekin (...) etxeko argitasun edo argitasun naturala bakarrik erabiliz (...) aktorerik gabe (...) zinea orain arte iritsi dena baino urrunago darama". Hautatutako lanen artean ondokoak daude: Jeune femme à sa fenêtre lisant une lettre (1983), Keep in touch (1987), De son appartement (2007) eta L'Appel de la forêt (2008).

**Emanaldi-lekua: Arte Eder Museoko entzutegia**

**7. VENEZUELA PLANO LABURREAN**

ZINEBIK Latinoamerikako zinearen ibilbidea egiten jarraitzen du, bertako herrialdeetako film laburren egileen azken lanak erakutsiz Oraingoan Venezuelako Kultura Ministerioaren, Zinematografiako Zentro Nazional Autonomoaren (CNAC) eta herrialde hark Bilbon duen Kontsulatuaren laguntzaz Zinemaldiko 50.edizioak Venezuelako produkzio gaztearen panorama erakutsi du, guztira lau dokumental eta fikziozko hamahiru film labur aurkeztuz. "Venezuela garaikidearen giltzarri batzuk ezagutzen" laguntzen



**2. INFOSPAIN**

Panorama de los cortometrajes españoles de ficción, documental y animación no incluidos en la Sección Oficial. Este año integran este apartado 11 películas.

**Lugar de proyección: Teatro Arriaga**

**3. INFOEUSKADI**

Una muestra de carácter no competitivo de 15 producciones vascas de ficción, documental y animación no incluidas en la Sección Oficial.

**Lugar de proyección: Teatro Arriaga**

**4. LA MIRADA DE LOS OTROS.**
**EL CINE SEGÚN JAMES BENNING**

Este ciclo presenta una selección, realizada por el cineasta norteamericano James Benning, acaso uno de los realizadores más originales y a contracorriente del cine de hoy, de seis largometrajes que constituyen otros tantos manifiestos a favor de cambios profundos en los modos de representación dominantes en la actual y estereotipada producción de la gran industria cinematográfica y audiovisual. En esta selección se presentan las siguientes obras: La Terre des âmes errantes, del camboyano Rithy Pahn (Francia, 2002), Nicht ohne risiko (Nothing Ventured), del alemán Harun Farocki (Alemania, 2004), Pine Flat, de la norteamericana Sharon Lockhart (E.E.U.U., 2006), Time & Tide y At Sea , del también norteamericano Peter Hutton (E.E.U.U., 2000 y 2007) y La Vie moderne, del francés Raymond Depardon (Francia, 2008).

**Lugar de Proyección:**
**Auditorio del Museo Guggenheim**

**5. LA ENTREGA DEL TESTIGO.**
**SEIS OBSERVACIONES SOBRE EL DOCUMENTAL**

Jean-Pierre Rehm, director del FID, Festival Internacional de Cine Documental de Marsella, presenta el ciclo La entrega del testigo. Seis observaciones sobre el documental, seis de los largometrajes de producción reciente más representativos de las últimas tendencias de la creación en este campo de la producción audiovisual: Must Read After My Death, del norteamericano Morgan Dews (E.E.U.U., 2007), Morakot (Emerald), del tailandés Apitchapong Weerasethakul (Tailandia-Japón, 2007), Khiam 2000-2007, de los libaneses Joana Hadjithomas y Khalil Joreige (Líbano-Francia, 2008), The Confessions of Roee Rosen, del israelí Roee Rosen (Israel, 2008), The Girl with the X-Ray Eyes, del británico Phillip Warnell (Gran Bretaña, 2008) y Au loin des villages, del suizo Olivier Zuchuat (Francia-Suiza, 2008).

**Lugar de proyección:**
**Auditorio del Museo de Bellas Artes**

**6. CÁMARA. EL CINE DE JEAN-CLAUDE ROUSSEAU**

Una muestra de dos largometrajes y siete cortometrajes de este cineasta francés, muy poco conocido en nuestro país, que nos obliga a interrogarnos permanentemente acerca del sentido de las películas como un arte individual, una práctica personal que en palabras de Manuel Asín, experto en la obra de Rousseau y coordinador de este ciclo, "con medios de un ascetismo que va más allá del de Ozu, Bresson, o Straub y Huillet, con una cámara no especialmente cara (...) sin iluminación ninguna más allá de la doméstica o natural (...) sin actores (...), lleva el cine un poco más allá de lo que había llegado hasta ahora". Entre las obras seleccionadas se encuentran: Jeune femme à sa fenêtre lisant une lettre (1983), Keep in touch (1987), De son appartement (2007) y L'Appel de la forêt (2008).

**Lugar de proyección:**
**Auditorio del Museo de Bellas Artes**

**7. VENEZUELA EN PLANO CORTO**

ZINEBI prosigue su recorrido por las cinematografías nacionales de Latinoamérica a través de las obras más recientes de los cortometrajistas de sus distintos países. En esta ocasión, con la colaboración del Ministerio de Cultura de Venezuela, del Centro Nacional Autónomo de Cinematografía (CNAC) y del Consulado en Bilbao de ese país, la 50ª edición del Festival presenta, con cuatro documentales y trece cortometrajes de ficción, un panorama de la joven producción venezolana, un conjunto de obras, que según Alizar Dahdah Antar, comisario de la muestra, nos permiten "apreciar algunas claves de la Venezuela contemporánea". Entre ellas cabe destacar el boom petrolero y sus efectos sociales y laborales, la

digu, Alizar Dahdah Antarren, erakustaldiko komisarioaren ustez. Giltzarri horien artean nabarmentzekoak dira petrolioaren booma eta honek gizartean eta lan munduan duen eragina, Caracas urbanizatzea, pertsonaia herrikoi eta ezagunak irautea edo egunero bizirik irauteko moduak, zeinak batzuetan latindar gaiztakeriaz mozorrotuta azaltzen baitira eta kreol bizitasuna ere deitzen baitzaie.

**Emanaldi-lekua: Bilborock aretoa**



**8. AMERIKATAR BAT BILBON. RICHARD LESTERRI OMENALDIA**

1960. urtean Richard Lester (Filadelfia, 1932) izeneko zinegile iparramerikar gaztea Britainia Handian bizi zen eta gure herrialdean guztiz ezezaguna izanda ere Bilbora etorri zen The Running Jumping & Standing Still Film izeneko film laburra aurkeztera. Zinemaldiko Nazioarteko Epaimahaiak Film Labur Onenari Zilarrezko Mikeldia eman zion "asmatzearen aberastasunari eta umore sanoari" esker. 1970. urtean, nazioartean gero eta ezagunagoa bihurtzen ari zen unean, Nazioarteko Epaimahaiko presidentea izan zen. Beraz, gure hiriko lagun zaharra da dagoeneko. Richard Lester saria jaso zuen lehenengoetakoa delako eta edizio hau oso berezia delako, ZINEBIren berrogeita hamargarren urteurrenean Richard Lesterrek Ohorezko Mikeldia jaso du. Beatles taldearekin egindako pelikula ezagunen egilea da eta ZINEBIk bere lan esanguratsuenen erakustaldi bat eskaini zuen, aipatutako film laburra tartean da eta ondokoak ere bai: Help! (1965), The Knack…and to get it (1965) eta Robin and Marian (1976).

**Emanaldi-lekua: Guggenheim Museoko auditorioa**

**9. EX-IS. IRUDI ETA SOINU ESPERIMENTALA**

2004. urtetik ZINEBIk, EBA (Euskal Bideoartistak) izenpean, edizio guztietan Euskal Herrian garatzen ari den bideoartea eta balio anitzeko ikus-entzunezko esperientziak kontuan hartzen ditu. Ikus-entzunezko produkzio mota hau ohiko pantailatatik irteten da eta irudiaren eta soinuaren tratamendu esperimentalak burutzen dira, bideo instalazioak eta performanceak. Irudi eta soinu esperimentala (Experimental Imagen y Sonido), erakusketa-lehiaketa bat da ikus-entzunezko sorkuntza garaikidea sustatzeko eta formatu berriekin esperimentatzeko. Erakusketa-lehiaketa honen antolatzaileak eta komisarioak Itxaso Diaz eta Begoña Hernandez dira eta esperientzia honekin , arduradunen esanetan, etapa berri bati ekiten zaio, munduari irekia, interaktiboagoa eta parte-hartze handiagokoa. Lehen edizio honetan nazioartetik 160 lan jaso dira eta horietatik antolatzaileek 35 lan hautatu dituzte, ondoko herrialdeetako lanak hain zuzen: Alemania, Australia, Brasil, Kolonbia, Hego Korea, España (Euskal Herriak eta Kataluniak nabarmenki parte hartuz) AEB, Frantzia, Holanda, Hungaria, Irlanda, Israel eta Mexiko.

Sari banaketa azaroaren 28an da. Epaimahaia ondoko adituek, bideo-artistek eta ikertzaileek osatzen dute: Eugeni Bonet, Laura Baigorri eta Arantza Lauzirika. Lehen saria, 2000 eurokoa Entre un oeil et l'autre pelikularentzat da, Laetitia Legrosek egina (Francia); bigarren saria, 1500 eurokoa, Emisión 07. Experiencias alternativas de televisión filmarentzat da, Arturo Rodriguez eta Cristina Arrazola-Oñate zuzendari euskaldunek egina; publikoaren saria, 1000 eurokoa, Lotus Sunlight filmak jaso du, Pedro Salgado portugaldarrak egina, lana Espainian egin du gainera. Jarraian, estrainaldia izango da gainera, Oteiza y el Centro Cultural Alhóndiga. Un proyecto estético para Bilbao, dokumentazio-ikerketa lana ikusi ahal izango duzue, Iskandar Rementeriak egileak berak aurkeztuko du eta produkzioa aurrera eramateko ZINEBIren laguntza izan du.

**Emanaldi-lekua eta sari banaketa: ZINEBI-BBK Gunea (Gran Via Zinema zaharra)**

**10. BILBOKO OROITZAPENAK. BERRESKURATUTAKO BI LEKUKOTASUN**

ZINEBIk aurten duela gutxi zaharberritu diren bi film labur aurkeztuko ditu, non hirurogeiko hamarkadako Bilboko errealitatearen hainbat alderdi azaltzen baitira. Bata Ocharcoaga da, 12 minutu irauten ditu eta 1961. urtean zuzendu zuen Jorge Grau zinegile kataluniarrak garai hartako Etxebizitza Ministerioaren enkarguz. Film honen kopia galdutzat jotzen zen. Bilboko txabola-giroaren inguruko eta Otxarkoaga auzoa eraiki zen garaiko dokumentu zoragarria da, auzo honetan birkokatu baitzituzten txaboletan bizi ziren familiak. Aurten, berriz ere, Filmoteca Vasca-Euskadiko Filmategiak egin du zaharberritze lana. Besteak La ría de Bilbao izena du, eta Pedro Olea zuzendari bilbotarrak filmatu zuen 1966. urtean telebistako sail baten barruan, Conozca usted España. Itsasadarrean zehar 30 minutuko ibilbidea egiten da, hiriko bizkarrezurra bailitzan, eta toki

urbanización de la ciudad de Caracas, la pervivencia de personajes populares emblemáticos o las formas de la supervivencia cotidiana que a veces se revisten de picardía latina, también llamada viveza criolla.

**Lugar de proyección: Sala Bilborock**

**8. UN AMERICANO EN BILBAO. HOMENAJE A RICHARD LESTER**

En 1960 un joven cineasta norteamericano llamado Richard Lester (Filadelfia, 1932), afincado en Gran Bretaña y absolutamente desconocido en nuestro país, vino a Bilbao con un cortometraje titulado The Running Jumping & Standing Still Film y el Jurado Internacional del Festival le concedió el Mikeldi de Plata al Mejor Cortometraje "por su riqueza de invención y sano humorismo". En 1970, con una carrera internacional en pleno despegue, fue Presidente del Jurado Internacional. Es pues un viejo amigo de nuestra ciudad. Por ello, en el cincuentenario de ZINEBI, Richard Lester, uno de sus primeros galardonados, es el Mikeldi de Honor de esta edición tan especial. Autor de las muy conocidas películas con los Beatles, ZINEBI presenta una pequeña muestra con sus trabajos más significativos, entre ellos el cortometraje mencionado, al que acompañarán Help! (1965), The Knack…and to get it (1965) y Robin and Marian (1976).

**Lugar de proyección: Auditorio del Museo Guggenheim**

**9. EX-IS. EXPERIMENTAL IMAGEN Y SONIDO**

Desde 2004 ZINEBI, con la denominación EBA (Euskal Bideoartistak), viene prestando atención en sus sucesivas ediciones al desarrollo en el País Vasco del videoarte y de las experiencias audiovisuales multidisciplinares, un campo de la producción audiovisual que se sale de la pantalla convencional, en el que confluyen tratamientos experimentales de la imagen y el sonido, videoinstalaciones y performances. Este año, en el marco de su cincuentenario, el Festival transforma esta atención en EX-IS. Experimental Imagen y Sonido, una muestra-concurso dirigida al fomento de la creación audiovisual contemporánea y a la experimentación de nuevos formatos. Itxaso Díaz y Begoña Hernández son las organizadoras y comisarias de esta muestra-concurso con la que se abre, a juicio de sus responsables, una nueva etapa, abierta al mundo, más interactiva y participativa. En esta primera edición se han recibido 160 trabajos de ámbito internacional, de los cuales la organización ha seleccionado 35 piezas procedentes de Alemania, Australia, Brasil, Colombia, Corea del Sur, España (con la participación destacada del País Vasco y Cataluña), E.E.U.U., Francia, Holanda, Hungría, Irlanda, Israel y México.

La entrega de premios se celebra el 28 de noviembre. El jurado, compuesto por los expertos, videoartistas e investigadores Eugeni Bonet, Laura Baigorri y Arantza Lauzirika, hace entrega del primer premio, dotado con 2000€, al film Entre un oeil et l'autre, de Laetitia Legros (Francia); el segundo premio, dotado con 1500€, es para Emisión 07. Experiencias alternativas de televisión, de los realizadores vascos Arturo Rodríguez y Cristina Arrazola-Oñate; el premio del público, dotado con 1000€, es para Lotus Sunlight, del realizador portugués Pedro Salgado, que ha realizado su obra en España. A continuación tiene lugar el estreno del trabajo de investigación documental titulado Oteiza y el Centro Cultural Alhóndiga. Un proyecto estético para Bilbao, presentado por Iskandar Rementeria, su realizador, que ha contado para su producción con la colaboración de ZINEBI.



**Lugar de proyección y entrega de premios: ZINEBI-BBK Gunea (Antiguo cine Gran Vía)**

**10. MEMORIAS DE BILBAO. DOS TESTIMONIOS RECUPERADOS**

ZINEBI presenta este año dos cortometrajes recientemente restaurados que muestran diversos aspectos de la realidad bilbaína en los años sesenta. El primero de ellos es Ocharcoaga, de 12 minutos de duración, dirigido en 1961 por el cineasta catalán Jorge Grau por encargo del Ministerio de la Vivienda de la época, cuya copia había sido dada por perdida. Se trata de un espléndido documento sobre el chabolismo en Bilbao y la construcción del barrio de Otxarkoaga, destinado al realojo de las familias chabolistas. La restauración es obra, un año más, de la Filmoteca Vasca-Euskadiko Filmategia. El segundo se titula La ría de Bilbao, filmado por el director bilbaíno Pedro Olea en 1966 para la serie de televisión Conozca usted España. Se trata de un recorrido visual de 30 minutos por la ría como elemento vertebrador de la ciudad, deteniéndose en la observación de lugares característicos como las Siete Calles, al tiempo que se muestra el fundamento minero, industrial y financiero de la Villa e incluso ciertas costumbres populares y ciertas mitologías deportivas. La restauración digital de esta obra ha

esanguratsuetan geldiunea egiten du, Zazpikaleak, esaterako. Aldi berean hiriko meatzaritzaren, industriaren eta finantzaren oinarria erakusten da, baita ohitura herrikoiak eta hainbat kirol-mitologiak ere. Lan hau Radio Televisión Españolak (RTVE) zaharberritu du digitalki, ZINEBIren berrogeita hamargarren urteurrena dela-eta ekarpen gisa.

**Emanaldi-lekua: Arriaga Antzokia**



**11. ZINEBILAB**

ZINEBI 50eko programaren barruan, aurten zortzigarren urtez, ZINEBILAB izeneko mintegi-tailerra izan da. Zinemaldiak hiru egunez ikasleak, zuzendari gazteak, eta ikus-entzunezko produkzioan adituak direnak elkartu ditu Media Antena Euskal Herriaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen EHU-UPVren lankidetzarekin. Topagune honen bitartez partaideei ideia berriak eta pelikulak egiteko garaian dauden joera berriak erakutsi nahi zaizkie eta ikus-entzunezko lanen produkzio-moduak aztertu nahi dira. Modu praktikoagoan gonbidatutako aditu eta zinegileen laguntzaz sormen eta produkzio lanaren alderdi jakin batzuen gainean hausnartu nahi da. Aurten ZINEBILABek monografikoki ikus-entzunezko industriaren sektore guztietan, bai idazketan, baita erakustaldietan ere, sartzen ari den iraultza digitala deiturikoaren ondorioak eta aldaketak aztertu ditu. Horretarako, mintegi-tailer honetan alderdi hauetako bakoitzeko adituak izan dira, horien artean Jean-Claude Rousseau frantziarra: egile honek oso lan-tresna arinak, aktorerik gabe eta ia eskulana erabiliz lan berezi eta erakargarriak egin ditu. Estetikoki emaitza Ozuk, Bressonek edo Straub-Huilletek lortutakoa baino urrunago doa. Honekin batera, Juan Carlos Gomez, Xavi Gimenez eta Kiko de la Rica argazkilari-zuzendari espainiarrak ere izan dira eta HDV formatu berriekin filmatzeari buruzko saio berezia egin dute, eta Juanjo Carretero ere bai, postprodukzio teknika eta efektu digitalak egiten aditua. Pablo Malo zuzendariak, Jon Corcuera HDn teknikari-espezialistak eta Iñaki Madariaga efektu digitaletan aditua denak moderatu dituzte saio hauek. Mintegian gainera, lan-saioak eta esperimentu-saioak egin dira orain merkatuan dauden maila goreneko kamarekin eta postprodukzio elementuekin (Red One, Arri D-21, Panasonic 3000, EQ, PABLO, eta abar).

**Tokia: Euskal Irrati Telebistako (EITB) Multibox aretoa EHU-UPVko Leioako Campusa.**

**12. ZINESKOLA**

Arriaga Antzokian goizeko saioak izan dira eta bertan gure hiriko eskola desberdinetako haurrek eurentzat egindako fikziozko eta animazioko produkzioak ikusi ahal izan dituzte, Espainiakoak eta nazioartekoak. Pelikula hauen argumentuak oso erakargarriak dira haurrentzat eta irakasleentzat eta ikasgeletan lantzen diren balioei dagokienez ikuspuntu interesgarriak erakusten dituzte. Gainera, aurten lehen aldiz, ZINESKOLAk Bilbon aurrera eraman den esperientzia pedagogiko interesgarri baten emaitza erakutsi du: ZINEBIMOTION. Proiektu artistiko eta hezitzailea da Stop-motion izena duen animazio-teknikan oinarrituta eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako irakasleentzat eta ikasleentzat diseinatua. Lehen edizio hau aurtengo urtarrila eta ekaina bitartean burutu da eta Bilboko Birjinetxe eta Mina del Morro ikastetxe publikoetako 57 ikaslek parte hartu dute.

**Emanaldi-lekua: Arriaga Antzokia**

**13. PROIEKZIO BEREZIAK**

